

Hona hemen artista gazte ipurterre talde batek abian jarritako egitasmoa: grabatu-dantza. Gezurra dirudien arren, dantza eta grabatua uztartuz, artelanak egin daitezke.

**E**kimen bitxi eta aitzindari batekin gatozkizu oraingotan. Grabatu-dantza proiektua Donostiako Txokolarte izeneko arte tailerrean sortu zen. Baina, zer da grabatu-dantza? Lau elementu nagusi ditu arte ekintza honek: dantzariak, papera, tinda eta musika. Oso ekintza ikusgarria da, hainbat dantza diziplinatako (klakea, flamenkoa, euskal dantza, dantza garaikidea, ballet-a, break-a, hip-hop-a, afrikar dantza...) 11 dantzarik koreografia baten aztarnak marrazten baitituzte zoruan ipinitako paperetan. Horretarako, tindaz eta grabatuaren teknikaz baliatzen dira.

Dantzariak batera aritzen dira, gune handi batean. Guztiek musika bera erabiltzen dute, eta nork bere koreografia hainbat aldiz errepikatzen du, grabatu serie bat osatu arte; grabatu serieko ale guztiak berdintsuak dira. Hori bai, dantzarien aztarnak ez dute zerikusirik elkarrekin: flamenko dantzariaren urratsek bihotzak dirudite; hip-hop dantzariaren grabatuan kirol zapatilak antzeman daitezke; dantza garaikidea egiten duenarenean




Argazkiak: Mikel Arroyo

eskuak eta oinak; ballet dantzariaren antzeman ezin diren puntako zapatilak; Ederra, benetan.

### Lan talde zabala

Arte ekintza hau antolatzeko, hamaika dantzarietz gain, makina bat lagun aritzen dira lanean: ekoizpen eta sustapen taldekoak, paperak zoruan jartzen dituztenak, tindaz arduratzen direnak, grabatutako papera kendu eta zintzilikatzen dutenak, musika



## Dantzariak koreografiaren aztarnak grabatzen dituzte

jartzaileak, bideo grabatzaileak... "Dantzarien oso garrantzitsua da, baina atzean jende guzti ariko ez balitz, ezin izango genuke ekintza eg esan digu Estibalitz Alvarez proiektuaren sortz eta grabatuaren arloan hainbat sari irabazit donostiarrak.

Proiektua abian jartzerakoan, arduradunek baz ten egitasmoak hainbat buruhauste sortuko ziz la. "Jende asko mugitu behar da, eta leku hant behar dira ekintza egiteko. Ezin dugu edozein t tara joan. Horrek guztiak aurrekontua garestit du. Pentsa; autobus bat behar dugu dantzariak ekintzarako beharrezkoak diren gauzak eram ko", dio Estibalitz-ek. Hala ere, ez dute etsi, une honetan sustapen lanetan ari dira, proiekt Euskal Herrian zabaltzeko itzaropenez. Zorte on aurrera!